

OHIKO BATZAR OROKORRAREN DEIALDIA

“MUTUALIA” Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen 2 zenbakiko mutuaren (aurrerantzean, *Mutualia*) Zuzendaritza Batzordeak, 2024ko martxoaren 25ean egindako ohiko bileraren adostutakoaren arabera, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 86. artikuluan eta Erakundearen Estatutuen 22. eta 23. d) artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorriz, enpresa elkartuei **OHIKO batzar orokorrerako DEIALDIA** egitea erabaki du. Batzarra **2024ko uztailaren 19an (ostirala) egingo da, 12:00etan, lehen deialdian, eta 12:30ean, bigarren deialdian, Donostian (PAKEA Klinikako areto nagusia, Arriola pasealekua 26, Ibaeta Auzoa)**, honako honi jarraituz:

GAI-ZERRENDA

1. **Presidentearen hasierako agurra eta hitz-hartzea**
2. **Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa aztertu eta, hala badagokio, onartzea honako hauek barne hartuz: aldi baterako finantza-inbertsioen txostena, ondare historikoaren zuzkidurak eta aplikazioak barne; memoria, Gobernu Korporatiboaren urteko txostenarekin; 2023ko ekitaldiko balantzeak, emaitza-kontuak eta aurrekontu-likidazioaren egoera, Gizarte Segurantzaren Kontu-hartzailetza Nagusiak emandako auditoretza-txostenak ezagutu ondoren; eta 2023. ekitaldiko emaitza ekonomikoa eta soberakinaren aplikazioa.**
3. **2025eko ekitaldirako aurrekontuen aurreproiektuari buruzko informazioa ematea eta, hala badagokio, onestea, eta Zuzendaritza Batzordeari eskumenak eskuordetzea Gizarte Segurantzaren Aurrekontuen Proiektuan integratzeko behar diren aldaketak egin ditzan.**
4. **2023ko ekitaldiko Prestazio Berezien Batzordearen kudeaketari buruzko txostena.**
5. **Gobernu Korporatibo Egokiaren Politika Orokorraren aldaketa aztertu eta, hala badagokio, onartzea.**
6. **Zuzendaritza Batzordeko kideak berritzea eta berrestea.**
7. **Bi kontu-hartzaile izendatzea, bileraren akta berretsi eta onesteko.**
8. **Presidentearen azken hitz-hartzea.**
9. **Galderak eta eskaerak.**

Batzar Orokorrerako eskura dagoen dokumentazioa: Aldi baterako finantza-inbertsioen txostena, memoria, balantzeak, emaitza-kontuak, Gobernu Korporatiboaren urteko txostena, Gobernu Korporatibo Egokiaren Politika Orokorrerako proposatutako testu berrikusia eta Gizarte Segurantzako Kontu-hartzailetza Nagusiak emandako auditoretza-txostenak Mutuaren webgunean kontsultatu ahal izango dira (www.mutualia.es/eu), batzar orokorren aurreko 15 egunen barruan, baldin eta azken horiek Mutualiari jakinarazi bazaizkio, eta betiere jakinarazpenaren egunetik hasita.

Legitimazioa ziurtatzeko modu eta baldintza aplikagarriak: Batzar Orokorra egiten den egunean indarrean dagoen kidetze-agiria duten Mutualiako enpresa elkartu guztiek izango dute bertaratzeko eskubidea. Hala ere, beren betebeharrak egunean dituztenek bakarrik izango dute botoa emateko eskubidea. Era berean, bertaratzeko eta botoa emateko eskubidea izango dute Mutualiari atxikitako langile autonomoen ordezkariak eta erakundeko langileen ordezkariak.

Bertaratzeko eta botoa emateko eskubideak erabiltzearen ondorioetarako, kontrol-erregistro eguneratu bat dago Mutualiaren helbide sozialean eta egoitza operatiboan, batzar orokorren deialdia egiten den egunean dauden enpresa elkartuak eta betebeharrak egunean dituztenak jasotzen dituena, haiei dagozkien datuekin. Betebeharrak horiek kidetze-agiria eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiria erakutsita ere egiazta daitezke.

Mutualitatearekin elkartuta dagoen eta Batzar Orokorrera bere izenean edo eskuordetzaz joan nahi duen enpresa orok *“Bertaratzeko eta/edo botoa eskuordetzeko txartela”* izan behar du. Mutualiaren edozein zentrotan edo gure webgunean (www.mutualia.es/eu) eskuratu daiteke txartel hori. Botoa eskuordetzan emanez gero, beste enpresa elkartu bati eman ahal izango zaio ordezkari, baita Mutualiako lehendakariari edo Zuzendaritza Batzordeko beste edozein kideri ere. Edozein zalantza edo kontsultatarako: 94 425 25 03

Bilbon, 2024ko martxoaren 25ean
Mutualiako Zuzendaritza Batzordea
PRESIDENTEA